BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

503

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 9koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zeinen bidez zuzentzen baita «Kale antzerkia bultzatuz» programari emandako laguntzen berri ematen duen 2011ko abenduaren 5eko Ebazpena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

«Kale antzerkia bultzatuz» programari emandako laguntzen berri ematen duen Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2011ko abenduaren 5eko Ebazpenaren eranskinean era horretako akatsak egin direnez, zuzendu egin behar dira. Ebazpen hori 2012ko urtarrilaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (1. zenbakia).

Aipatu eranskinean, akats batengatik ez dira agertzen 2011ko ekitaldiko onuradunak.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– «Kale antzerkia bultzatuz» programari emandako laguntzen berri ematen duen Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen 2011ko abenduaren 5eko Ebazpenaren eranskina aldatzea. Ebazpen honi erantsi zaio idazketa berria.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 9a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

«KALE ANTZERKIA BULTZATUZ» PROGRAMARI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK

2011. urtean aire zabaleko gune publikoetan euskal antzerki-konpainiek egiten dituzten ikuskizunen urteko programak garatzeko dirulaguntza eman zaienen zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza
Alegria-Dulantziko Udala	2.360
Aramaioko Udala	1.389
Aretxabaletako Udala	1.746
Arrankudiagako Udala	1.855
Arrasateko Udala	5.082
Astarloa Kulturgintza	4.973
Astigarragako Udala	1.902
Atxondoko Udala	1.982
Beasaingo Udala	2.755
Bergarako Udala	2.880
Biasteriko Udala	961
Bilboko Udala	3.760
Donostia Kultura Erakunde Publikoa	3.732
Elgoibarko Udala	4.761
Eskoriatzako Udala	1.658
Etxebarriko Udala	1.723
Getxoko Kultur Etxea	2.260
Hondarribiko Udala	3.483
Iurreta eleizateko Udala	2.360
Lasarte-Oriako Udala	4.128
Legazpiko Udala	4.177
Markina-Xemeingo Udala	1.246
Mutrikuko Udala	1.138
Plentziako Udala	1.600
Portugaleteko Udala	1.723
Sestaoko Udala	3.565
Urduñako Udala	3.002
Urkabustaizko Udala	1.150
Usurbilgo Udala	2.437
Zarauzko Udala	4.892
Zestoako Udala	1.747
Zigoitiko Udala	946
Zizurkilgo Udala	2.974
Zornotzako Kultura eta Euskera zerbitzurako herri erakundea	3.653